

# ttipi ttapa

2002ko irailaren 5a • XXII. urtea



## Habla en cristiano erakusketa Lesakan

04

Euskarak arlo ezberdinetan jasan dituen erasoei buruzko «Habla en cristiano» erakusketa ikusgai izanen da Lesakako Herriko Etxean irailaren 13tik 28ra.



## Irurita ustegabeko txapeldun laxoan

28

Baztan-Errekako laxoa txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 4ean Oitzen eta Irurita A taldeak eskuratu zuen txapela, Arraiozi 9-8 irabazi ondotik.

## 03 Untxi hazleak krisi larrian



# FESTIVAL DE LAS NACIONES

SOLIDARIDAD

ESPECTACULOS EN VIVO Y EN DIRECTO

GASTRONOMÍA INTERNACIONAL

ARTE Y ARTESANÍA DEL MUNDO

Prezioa: 10 euro kontzertu egunetan, 8 euro lehenago erosiz, 7 euro CANeko klubetan  
 Kontzerturako sarreren salmenta 901 500500 Tfnoan (Infoclub)  
 eta Chaston, Cirkus eta Liverpoolen

**CONCIERTOS**

**MELODY**  
Abuztua  
Ortiziralea 30

**LUIS MIGUEL DEL AMARGUE**  
Abuztua  
Ort. 30, lar.31

**NATALIA Y NAIM**  
Iraila  
Ortiziralea 6

**COYOTE DAX**  
Iraila  
Larunbata 7

**LUCRECIA**  
Iraila  
Ortiziralea 13

**KING AFRICA**  
Iraila  
Larunbata 14

**Zezen plaza - Iruñea**  
ABUZTUAREN 29TIK IRAILAREN 15ERA

TENTAZIOA PRODUKZIOAK

# Anarkista baten ezusteko herio za

Dario Fo

Zuzendaria  
Pere Planella



**EGUNA**

Irailaren 14an

**ORDUA**

20:00etan

**TOKIA**

Berako  
Kultur Etxean

**ANTOLATZAILEA**

Berako  
Euskara  
Batzordea

**LAGUNTZAILEA**

Berako Udala

## DATUAK...

- Azken hemezortzi urtetan, lehenbiziko biak Ezkurran eta azken hamaseiak Lesakako Katazpegi auzoan dagoen Ortzeroka baserrian, untxiak hazi ditu Jose Luis Taintak.
- EHNE eta COAG sindikatueta untxi hazleen ordezkaria da, baita Naraba kooperatibako lehendakaria ere.
- Prezio krisi larriak jota dago aurten untxia. Kilo bakoitzeko 1,20 € jasotzen dute untxi hazleek eta produzitzea 1,60 € gostatzen zaie.



Jose Luis TAINTA *Lesakako untxi-hazlea*

AITOR AROTZENA

# «Sektorearen krisia moldatzeko untxi esplotazioak itxi egin beharko dira»

Aitor AROTZENA

**Zein da untxi hazkuntzak aurten duen krisi larriaren oinarria?**

Joan den urtean prezio onak izan ziren eta produkzioa handitu egin zen. Eta produkzio hazkuntza hori orain ateratzen da merkatura. Gainera 800 bat Tona esportatu egiten ziren iaz Portugal eta Frantziara. Aurten ez da batera esportatu. Horreri, Frantziatik untxia hagitz merke sartzen ari dela gehitzen badiogu, hori dena elkartu eta egoera lehertu egin da. Sektore ttikia gara eta produkzio igoera eta jautsierak aunitz somatzen ditugu.

**Aipatutako guzi horrengatik, prezioak lur jota dabilta aurten...**

ITG egindako ikerketaren arabera, untxi kilo bakoitza produzitzea 1,60 € gostatzen zaigu eta banazbertze 1,20tan saltzen dugu. Beraz, egunero lanaz aparte, saltzen dugun kilo bakoitzeko 40 xentimo galtzen dugu. Uda partean prezioek goiti egiten dute, urteko jautsiera errekupe-ratu behar duzula uste duzu, baina aurten alderantziz gertatu da. Frantziako untxia sartzen ari dira eta abuztuan beheiti egin du prezioak. Gero,

**«Kiloa produzitzea 1,60 euro gostatzen zaigu, 1,20tan saldu eta gero harategian 5 eurotan dago. Tartean lotsagabe aunitz dabil!»**

harategira joan eta kiloa 5 eurotan dagoela ikusten duzu. Hor tartean lotsagabe aunitz dabil! Nafarroan 60 bat granja daude eta urte honetan hemen 684.000 euro galdu du untxi hazle sektoreak, 114 milioi pezeta.

**Egoera hau ikusita zenbait bilera eta mobilizazio egin dituzue.**

Espainia eta Nafarroako Gobernuko ordezkariekin bilerak egin dira, baina ez dute aterabiderik ematen. Arazoa luzatu egin nahi dute, bere gisara soluzionatzeko. Azken finean, esplotazio batzuk ixten direnean soberan dagoen produkzio hori jautsiko da eta prezioak bere onera etorriko dira. Baina bien bitartean hainbat familiren ogibidea galduko da. Bertze soluziorik ez dute ematen, ez Madrilen ezta Nafarroako Gobernuan ere. Iraila-urrian publizidade kanpaina baterako dirua izanen dela adie-

razi dute hitzez, baina idatziz deus ere ez. Gero, kreditu bigunak egiten omen dituzte, baina barregarriak dira: untxi-ama bakoitzeko 10 euroko mailegua hartzen duzu, baina norberak hartu behar du, Ministerioak bonifikazioa bat bertzerik ez du ematen. Azkenean, ordaindu beharreko bertze kreditu bat da. Abuztuaren 9an Nafarroako 50 produzitzaile Iruñean izan ginen, batzarrean bildu eta untxiak askatu genituen. ITG erakundeari ere eskutitza eman genion, gaur egungo prezioak ikusiz, hazia eta al-baitari zerbitzuak ezin ditugula ordaindu adieraziz.

**Krisi egoera honek zer eragin izanen du esplotazioetan.**

Nire kasuan esplotazioari geldialdi bat emanen diot. Urte hasieran 450-500 untxi-ama genituen, orain erdia dugu eta laister guziak kenduko ditugu. Komenigarria izaten da tarteka geldialdi sanitarioak egitea, kaiolak hondatzen dira, mikrobio kopurua handitzen da... garai egokia dela iruditzen zaigu. Zoritxarrez, horrela emanen zaio irtenbidea sektoreko krisiari, esplotazio batzuk itxiz.



Udaletxe eta elizetan erabat baztertu zen euskara Franco garaian. Horren adibideak ageri dira «Habla en cristiano» erakusketan.

Ekitaldiz beterik iritsi da iraila Lesakara. Izan ere, azken urteotan Euskal Herrian izan den erakusketarik interesgarrienetakoa ekarriko du Lesakako Udalak herrira Euskara Batzordearen laguntzarekin: Sabino Arana Kultur Elkargoaren «Habla en cristiano» erakusketa, batik bat frankismo garaian euskarari egindako erasoak buruzkoa. Erakusketa hagit inportantea da hau, Bilbon eta Artean izan dena erakusgai orain arte. Alde honetatik, Lesakako Udaleko ordezkariak ahalegin handia egin dute herrira ekarri ahal izateko. «Habla en cristiano» erakusketa irailaren 13tik 28ra bitarte izanen da ikusgai Lesakako Herriko Etxeko batzar gelan, 19:00etatik 21:00etara. Inaugurazio ekitaldia irailaren 13an, 20:00etan izanen da.

LESAKAKO KULTUR EGUNEN BARRENEAN

# Euskarari egindako erasoak ikusgai «Habla en cristiano» erakusketan

**Aitor AROTZENA**

Sabino Arana kultur elkargoaren erakusketa arrakasta handiz bidaia-zen ari da. Orain arte Bizkaian bakarrik ikusi da, Bilbon eta Artean, baina bi astez, irailaren 13tik 28ra Lesakako Herriko Etxean izanen da. Franco garaian, eta baita lehenagotik ere, gure hizkuntzak jaso zituen

bazterketa eta erasoak agerian uzten ditu erakusketa honek. Aipatu bezala, irailaren 13an egingen da irekiera ekitaldia eta bertan bertsolariak eta abesbatza izanen dira.

## KULTUR EKITALDI OSAGARRIAK

Erakusketa hori osatzeko hainbat kultur ekitaldi antolatuta dituzte adin

guztietako jendeari zuzendurik. Horrela, eskertu beharra da herriko hainbat talderen ekarpena: Musika eskola, musika banda, abesbatza, bertsolariak, Txakain txaranga, akordio-lariak, Toki Onako guraso elkarteak, Arrano elkarteak, Kasino, dantzariak... Ondoko orriko koadro urdinxkan ageri da egun horietarako egitaraua.

## HERRI BAT ERAIKI DUTE LESAKAKO HERRIKO ETXEAN

Arestian aipatu bezala, erakusketak honetan batez ere frankismo garaian euskararen kontra hartutako neurriak ageri dira. Era berean, gerra ondoko garai hartan euskararen kontrako inposizioa ezagutu zuten hainbat pertsonen testigantzak daude entzungai. Neurri eta testigantza horiek guztiak erakusteko herri bat eraiki dute Lesakako Herriko Etxeko batzar gelan: plaza, eliza, kanposantua, tren geltokia, Herriko etxea, eskola... Diktadura garaiko Euskal Herriko edozein herritako egunero ko bizitza irudikatu nahi izan dute, guztiok gogora dezagun garai hartan nola bizi ziren eta zein neurritan zegoen euskara debekatua: hilerrian euskaraz idatzitako hilarriak hautsita edota estalita aurkitzen ahal dira; tren geltokian euskaraz zeuden txartelak onartzeagatik geltokiko arduradunari jarri zioten isuna ikusten ahal dugu; eskolan euskaraz solasteagatik ume bati agindutako kopiak; Herriko Etxean, euskaraz solastea debekatzen zuten bandoak...



Neskapolitan ikuskizuna eskainiko du Kasketa kabaretak irailaren 21ean.

**Antzerkia bereziki gazteentzat: Kasketa kabaretaren NESKAPOLITAN**

- Eguna: Irailaren 21a, larunbatarekin
- Ordua: 20:00etan
- Tokia: Kasinon

**Kontzertua:**

**LESAKAKO MUSIKA BANDA**

- Eguna: Irailaren 22a, igandearekin
- Ordua: 13:00etan
- Tokia: Plazan

## EUSKARAREN AURKAKO ERASOAK ESKOLAN



Erakusketak Franco garaiko ikasgela irudikatzen du, baina aitzinetik ere hainbat eraso egin zitzaion euskarari eskoletan.

## Iturengo eskolan euskara erabiltzea debekatua 1900. urtean

Frankismo garaiko kontuak nagusi baldin bada dira ere, lehenagokoak ere biltzen dira: dagoeneko 1900. urtean Martínez irakasleari gaztele- ra bakarrik erabiltzea eskatu baitzioten Iturengo eskolan: "Siendo la lengua castellana el idioma oficial de la nación y el usual en todas las regiones españolas, y ade-

más el único necesario en el comercio, en el Ejército y en los establecimientos de enseñanza donde por necesidad han de desenvolverse los hijos de este pueblo, rogamos á usted que, á imitación de sus antedecesoras, prescinda por completo del vascuence, que usted parece permitir, no consintiendo que

los alumnos, ni usted en sus explicaciones, usen en la escuela otro idioma que el castellano, que usted muy bien posee, y que es el único que nos conviene y está mandado por las leyes vigentes."

(Iturengo Udalaren jakinarazpena, 1900eko martxoaren 20koa)

## LESAKAKO KULTUR EGUNAK, EKITALDIZ GAINEZKA

**Ipuin kontalaria: PELLO AÑORGA**

- Eguna: Irailaren 23a, astelehena
- Ordua: 18:00etan
- Tokia: Liburutegian

**Haurrentzako tailerrak:**

**PAPERA BIRZIKLATU**

- Eguna: Irailaren 24a, asteartea
- Ordua: 16:30etan
- Tokia: Eguraldi ona baldin bada plazan, bertzela, alhondigan

**Lesakako Musika Eskolako**

**kontzertua:**

**SAXOFOIAK ETA KLARINETEAK**

- Eguna: Irailaren 25a, asteazkena
- Ordua: 19:00etan
- Tokia: Alhondigan

**Jakoba Errekondoren solasaldia:**

**NOLA ZAINDU LANDAREAK?**

- Eguna: Irailaren 26a, ortzeguna
- Ordua: 20:00etan
- Tokia: Kasinon

**Dantzak: TANTIRUMAIRU EUSKAL**

**FOLKLORE TALDEA**

- Eguna: Irailaren 27a, ortzirala
- Ordua: 20:30etan
- Tokia: Plazan

**Bertsolari eta akordiolariekin...**

**AFARIA**

- Eguna: Irailaren 28a, larunbata
- Ordua: 21:30etan
- Tokia: Kasinon (12€ balio duten txartelak Kasinon, Koxkilan, Kattun eta okindegian erosi)
- Oharra: Afaria baino lehen Txakain txaranga ibiliko da herrian barrena

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Franko Itundua: 34/79  
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com  
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemmanuel Irigoien.  
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.  
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Goñi.  
**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.  
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...  
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

#### Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrek, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## • KOLABORAZIOAK •

### Munduko Pilota txapelketaz



**Holanda eta Indiako Federazioak onartu, baina Euskal Herriko selekzioari ateak itxi egin zaizkio berriz ere, eta zeinek daki noiz arte!**

Oskar TXOPERENA Igantzioko pilota taldearen arduraduna

Denok dakigun bezala, 2002ko Munduko Pilota Txapelketa Iruñean jokatu berria da. Lau urtetik jokatzen da, eta pilotari afizionatuentzat konpetizioaren gailurra eta helbururik gogokoena dela ez dago ukatzerik. Zenbait modalitatetan gainera (trinketeko modalitate guztiak, gomazko pilota frontoian, frontenisa, eta abar...) goi mailako konpetizioan pilotariek aritzeko duten ia aukera bakarra. Beraz, pilotaz gozatzeko eta asetzeko aukera ezin hobea.

Noizbait barrenetik ezagutzeko aukera izan dugunoi zaila egiten zaigu, niri bai behinik behin, Munduko Txapelketa jokatzen den aldiro orduko bizipenak saihestea. Zer erranik ez Txapelketa etxetik ordu bete eskasera jokatzen ari baldin bada! Zeinen zoragarria den gustokoa duzun kirolean hamar egunez, bertzerik egin gabe, murgilduta egotea!!

Halere, Iruñeko Munduko Txapelketak aspaldiko lagunak agurtzeko eman digun aukera kontutan hartuta ere, gazi eta gezaren artean aukera egin behar banu, nigan gazitasun sentsazioa aisa nagusitu dela aitortu beharra daukat. Gauza anitz pasatu da azken asteotan Iruñean pilotaren inguruan ezkortasunaren mamua zabalduko dutenak, euskal pilotazaleengan batez ere. Gauzatu egin da azkenean gehienok uste genuena. Euskal Herriko selekzioari ateak itxi egin zaizkio berriz ere, eta zeinek daki noiz arte!. Kolpe galanta izan da aldarrikapen honen alde hainbertze lan egin duten pilotazaleentzat. Are iraingarriagoa izan da erabakia bilera berean pilotaleku bakar bat ere ez omen duen India eta Holanda onartu egin baitzituzten Nazioarteko Pilota Federazioaren barrenean. Hauen aportazioa Euskal Herrikoarena baino aberatsagoa izanen da nonbait.

Euskal Herriari sarrera ukatzen dietenek gaia politikaren esparruan kokatzea leporatzen diote behin eta berriz Euskal Herriko selekzioaren aldeko taldeari. Eta nik diot, ez al dira arrazoi politikoak Euskal selekzioa behin eta berriz kanpoan uzten dutenak? Nori edo zeri kaltetzen dio euskaldunok nazioartean gure selekzioa izateak? Pilotari edo Munduko Txapelketei? Ez noski. Garbi dago Espainiako Federazioak eta berau

bultzatzen duten talde politikoek bere lana «txukun» egin dutela –presioak, tratuak...– (Espainiar Federazioak Kuba, Mexiko eta Argentinaren botuak erosi izana salatu du Venezuelako ordezkariak). Euskal Federazioaren alde hainbertze solas egin duten bertze zenbait politiko, berriz, Erkidego Autonomoan batez ere, horretan gelditzen dira beti, solas hutsetan.

Pentsa dezagun momentu batez zer suposatuko lukeen Euskal Selektzioaren onarpenak hase-rako faseetan hain maila lotsagarria eman duen txapelketarentzat. Zein da helburua, konpetizioaren kaltetan ahalik eta estatu exotiko gehien pila-tzea? Hain txarra al da maila handiko bertze berrogeita hamar pilotariri aukera ematea? Herri nortasunaren gaia alde batera utzita, ez ote da, kirol mailan ere, Espainia eta Frantziaren nagusitasuna kolokan paratzeko beldurrik? Denbora luzean erantzun gabe geldituko diren galderak. Miresgarria da, bertzalde, Euskal selekzioaren aferarengatik txapelketari zenbait pilotarik uko egin izana. Halere, Espainiako edo Frantziako selekzioetan parte hartu dutenen jarrera ulertzeko modukoa dela erranen nuke. Izan ere, anitzek ez dute bere bizian horrelako konpetizioan jokatzeko bertze aukerarik izanen. Nere ustez, hain ulergarria ez dena zenbait aukeratzailer edo teknikoren jarrera da.

Konpetizio kontuetara mugatuz, arestian aipatutako maila eskasaz gain, bertze zenbait ondorio ere ateratzen ahal dira: Espainiako Federazioak tinko eutsi dio frontoian beti izan duen nagusitasunari –lau modalitateetan eta gehienetan inoiz baino aisago gainera–. Bertzalde, jakina denez, trinketea (eskuz) izan da betidanik Frantziako ordezkarien altxorra. Oraingoan, orde-a, sekula ahantziko ez duten ondoratze ikaragarria jasan behar izan dute. Orain arte Mexikon zenbait arerio gogor atera baldin bazaizkie, orain Kubako Waltari, mundialeko izarra, izan da borroeroa. Kanpoko pilotariak teknika gabekoak zirela erraten zutenek, ikus dezatela pilotari hau. Antolaketa aldetik Munduko Txapelketa polita izan da eta jende anitz ibili da –nola ez Nafarroan–. Kirol eta konpetizio aldetik, orde-a, larri dagoela erranen nuke nik, hiltzorian ez errategatik.

(\*) Lerro hauek idazterakoan oraindik finalak jokatze-ko daude.



• IRAKURLEAK MINTZO •

**Txan Magoaren erantzuna**

Itturen, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaingo herritarrak, gazteak eta umeak. Ekaineko Ttipi-ttapa aldizkarian nire izena azaldu zen eta horren aurrean erantzuna ematearen beharrean aurkitzen naiz.

Elkar mokoka aritze-ko asmorik gabe, barkamena eskatzearen bidea jorratu nahiko nuke honako lerro hauekin. Barkatu Itturen, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaingo umeak, benetan sentitzen dut hanka sartzeko burokratiko batengatik zuen ilusiori uko egin izana. Ume eta guraso, jakin ezazue aurrera eramaten dudan jarduera honen lehenengo motibazioa ilusioa banatzea dela, eta horri atxikituz zuen eskutan uzten dut nahi duzuenerako nire emantaldia antolatzea, zuekiko dudan zortzat hartzen baitut.

Eta komunikabideen aurrean jaso dudan kritika horren guztiaren aurrean zer esan... Oso hedatua dago gure herrian pertsonen artean arazok konpondu beharrean zuzenean komunikabideetara jotzea eta bide horretatik pertsonak erasotzea, desprestigiatzea. Teknika hori gure herrian berria da eta denok dakigu noren eskolakoa den. Mesedez, euskaldunen artean ez gaitzezen horretan erori eta erabiltzagun gure artean beste baliabide batzuk, giza komunikazioa alegia.

**Txan Magoaren  
Ilusio Tailerra.**

**Lorenzo Goikoa, Atarrabiako eskola publikoa, Nafar Gobernuaren lotsa**

Jakina da, Nafarroako Gobernuak eskola publikoarekin daukan jarraera, baztertzaila eta suntsitzaila dela. Denok badakigu, edo Lorenzo Goikoa Atarrabiako eskola publikora seme/alabak eramaten ditugunok, behinik behin, zer baldintza eskasetan igarotzen dituzte egunak, D ereduan batez ere. Espainiar estatuko erkidegoetatik eskola publikoari ukatzen dioten dirua, inongo lotsarik gabe pribatuak jasotzen du; beraien egoitzak haundituz eta hobetuz, eskola publikoa Nafar Gobernuak eta zenbait udalak bertan behera uzten duten bitartean. Zergatik naparrak egoera diskriminatzaile eta lazgarri hau pairatu behar dugu? Zergatik eskola publikoa eta batez ere, D eredia suntsitu eta desagertarazi nahi du Nafar Gobernuak? Lorenzo Goikoa Atarrabiako eskola publikoak pairatzen duen egoera adibide bat besterik ez da:

1.-"Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak" zenbait urte darama garatu gabe. Zergatik?

2.-Elebakar zuzendari talde baten utzikeriak Atarrabiako eskola gaurko egoera tamalgarrira eramaten du. Axolagabekeria eta kargua betetzeko ahalmen eza denok pairatu behar izan dugunok, partaide orok.

3.-Bertan bizi den konserjea (bakarra da), eskola ordutegitik kanpo, garaje gisa erabiltzen du. Eguraldi txarra duenean,

haur hezkuntzako jolas-tokia dena, hain zuzen ere. Nori bururatuko litzaioke bere etxeko egongelan edo pasabidean kotoxa gordetzea? Zergatik ez dira neurriak hartu gizon honek hainbat urtetan egin duena eragozteko? eta zergatik ikasleek pairatu behar dute egoera hau?

4.-Eskolako patioa urteak daramatza egoera tamalgarri honetan: "todouno" delako harea, obretan erabiltzen duten materialez osatuta dago. Haur Hezkuntzako ikasleek jolastera ateratzen direnean hautsa harrotzen dute, arnasketarako kaltegarria den hautsa alegia. Atarrabiako Osasun Zentzoko pediatrikiaz egindako agiri batean hautsa arnasterakoan umeek pairatzen dutena adierazi zuen: "irritación de las vías respiratorias y descomensación en niños/as con problemas de asma y alergias". Kontutuan harturik 3, 4, 5 eta 6 urteko haurrak direla, noiz arte paraitu behar dute egoera hau? Patioa bere horretan dirau, Nafar Gobernuak eta Udalak gurasoen eskabideei jarraian egin gabe konpondu gabe beste urte bat pasa da. Beste aldeetik, Udalak ezergutxi egin du urte hauetan patrioko garbitasuna bermatzeko. Garbiketa sakona behar du patioak, udalaren ardurapean dagoen garbiketa.

Gurasook gure seme/alabentzako heziketa duina nahi dugu, D ereduak dauzkan ezaugarri guztiak bermatutak nahi ditugu, hau da:

1) langilego oro elebiz, zuzendaria, zein atezaina, idazkaria zein ikasketak burua, jantokiko lan-

gileak zein atezaina, garbiketako langileak zein musika irakaslea.

2) patrioko hobekuntza, garbitasuna bermatzeaz gain, ikasleentzako leku atsegina eta arrisku gabeko bilakatu.

3) ikastetxeko hezkuntza proiektua garatu eta lanerako pedagogikoki behar diren baliabideak abian jarri.

4) D ereduko eskola publikoa bere osotasunean nahi dugu.

**Miren Edurne Salinas**

**Bustizko lepoko iruinarriaz**

Bustizko lepoan dagoen historiaurreko monolitoa 1985eko urriaren 20an aurkitu zuen Luis Millan San Emeteriok eta segidan, Iruñeko «Gorosti» Natur Zientzien Elkarteak jakinarazi zion. Gorosti aldizkarian, 1988ko 5. zenbakian, aurkituntza honi buruzko aipamen laburra azaldu zen. Ondotik, 1992ko 9. zenbakian ere aipamen bera azaldu zen. Patxi Ripak, Trabajos de Arqueología Navarra aldizkarian argitaratutako katalogoan ere aipatzen du, nafar guziek herrialdean duten monumentu megalitikoak berri jakin dezaitez.

Bada, hau dena kontuan hartu gabe, sunbeldar argi batzuei, ez zitzaizkien zutik jartzea baino gauza hobierik gogoratu, inori galdetu gabe, harri hori etzanda eta belarrak estalia zegoela erranez, eta iruinarri modernoak bilakatu. Azaina hau goraitzeko, ttipi-ttapa aldizkariaren 327. alean, 2002ko ekainaren 6ko-

an, monolito honekin egin duten basakeria argitaratu dute, harro gainera.

Pertsona hauek ez dakite lurrek jabea izaten dutela eta zerbait egin behar bada, jabeak jakin eta baimena eman behar duela. Eta historiaurreko kontuak direnean, lehenik Gorosti Natur Zientzien Elkarteak, Iruñeko Unibertsitateak, Principe de Vianari eta Nafarroako Museoari jakinarazi behar zaie, Nafarroako historiaurreko ondareari kalte egingen ez zaiola eta zuzen jokatzeko dela ziurtatzeko. Bustitzeko monolitoaren ezaugarriak jakiteko modurik ez dugu izanen orain, ez silexak zuten, ezta nora bideratua zegoen ere.

Lana bukatzeko ez zitzaizkien taladroak eramatea eta gurutzak, lekuaren izena, data eta borts lagunen izen-abizenen hasierak grabatzea besterik gogoratu. Oraindik folklorikoagoa izateko, ohiko artistak baserriar txapela eta guzi grabatu du lur azpian zegoen zatian. Gure galderak hauek dira: herrian bazekiten monolito hau altxatu behar zutela? Honelako gauza egiteko baimenik eskatu zuten? Zergatik ez dituzte beraien izenak beraien etxeko paretetan grabatzen?

Sortu ginen lurraldean maite badugu, zaindu dezagun, bere natur jakinduriarekin ikusmena gozatzeko, gizakiaren eskua zenbat eta guttiago agertu, orduan eta politagoa izanen baita.

**Luis MILLAN  
Hillarriak, Aranzadi eta  
Gorosti elkartetako  
kidea.  
(Erredakzioan itzulia)**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Ardatza 02-07-05

«Gazte jendeak baserrian segitzea erabakia hartzea zaila da. Nire kasuan, bi gauza baloratu ditut, familiako baserriarekin segitzea edo bertze bizimodua bilatu. Baserriarekin segitzea erabakitzen baduzu, garbi dago inbertsio handia egin behar dela. Gure kasuan, ixtegia berri behar izan genuen. Hau ez da batere errexa, inbertsioei aurre egiteko esplotazioa dexente ongi joan behar delako».

Mikel AZKARATE  
EHNEko ordezkaria  
Baztanen  
Ardatza 02-07-05

«Urte batez utzi nahi nuen jarduna, baina kazetariok dena nahastu zenuten, eta gehiago ez nuela atera behar esan zenuten. Ni isilik geratu nintzen, baina nire burua onenen parean jarduteko moduan ikusten dut, eta ez dut uste merezi duenik erabat uztea. Izan ere, txapelketetan aritzen ez bazara, jendeak uste du utzi duzula, eta oraindik neurria emateko moduan nagoela erakutsi nahi dut».

Mikel MINDEGIA  
Ezkurrako aizkolaria  
Egunkaria 02-08-29

• 11 GALDERA LABUR •



**Mattin GOIENETXE**

*Sarako besta taldearen presidente izana 25 urtez*

**Mendia ala itsasoa?**

Mendia.

**Balona ala pilota?**

Biak.

**Zein da gehien maite duzun jantzia?**

Arroltze eta xingar.

**Teknoa ala Punk musika?**

Ez bat ez bertzea.

**Zein da gehienik maite duzun musika taldea ala kantaria?**

Ande Duhalde.

**Sorpresak ala nahiago duzu jakinean egon?**

Sorpresak.

**Zein da zure kalitaterik onena?**

Prestua.

**Zure akatsik haundiena?**

Prestuegia.

**Animale bat bazinen, ze animale izan zinen?**

Zezena.

**Zer galdetu nahi zinu ke oraingo besta gomiteari?**

Errespetua atxikitzea.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENZIA

**Zurich Aseguruak**

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

**Lan aholkularitza**

• Nomina eta Aseguru Sozialak

**Aholkularitza fiskala**

• Errenta Deklarazioak, IVA...

**Inmobiliaria**

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

**Gestoria**

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan  
Mus Txapelketak

**ERREKALDE**  
ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948631076 • BERA

**PIKABEA**  
pinturak

Molinero drogerian  
galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

**Zalain**  
jatetxea

© Zalain s.l. • Tf. 948 63 09 67  
Bera - Nagarroa



## ADINEKOAK

# Arkupeak elkartearen Herrietako Anaitasun Eguna irailaren 14an

Lezo bisitatu ondotik Usurbilgo sagardotegi batean bazkalduko dute

### ttipi-ttapa

Larunbat honetan zortzi, irailaren 14an, Arkupeak elkarteak hartzen dituen herrietako anaitasun eguna ospatuko da. Horretarako, goizez abiatuko dira autobusetan eta 10:45etarako Lezon izanen dira. 11:00etan euskaraz emanen den Meza izanen dute Gurutze Sainduaren elizan. Ordubete beranduago gaztele-raz emanen dute. Meza ondoren, nahi duenak herrian barna ibiltzen ahal da edo elizatarian eskainiko den kirol emanaldia ikusi. 13:30etan abiatuko dira autobusetan Usurbilgo Saizar sagardotegira, bazkaltzera. Janari ederra izanen dute: iberi-urdaiazpikoa, zizkamizka, bakailuz betetako piperrak, legatza frijitua, idi txuleta patatekin, tarta bainilazko izozkiarekin, txanpaina, «Saizar» sagardo naturala, ura, ardoak, kafea eta likore normalak. Bazkal ondotik dantzaldia



ARTXIBOKOA

**Malerrekako Zerbitzu Orokorreko Mankomunitateak familia langileak ordezkatzeko zerrenda berri bat osatu nahi du. Interesatuak Mankomunitateko bulegoan aurkeztu beharko dute eskaera irailaren 12ko 14:00ak baino lehen. Probak irailaren 13an izanen dira. Xehetasun gehiago bulegoan (948 451746).**

izanen dute 19:00ak arte eta 19:45etan abiatuko dira autobusak, etxera bueltan.

Joan den abuztuaren 31n Arantzazuko Santutegira ere egun bateko bidaia edo erromeria egin zuten Arkupeak elkartekoek. Bertan meza aditu eta ai-

torntza egin ondotik, Zestoara joan ziren, Aroce-na jatetxean bazkaltzera.

### Urriaro hasiera *Espainia eta Portugalen barna*

Baina, ohikoa denez, ez dira egun bakarreko

ateraldiekin bakarrik gelditzen Arkupeak elkar-terko bazkideak.

Irailaren 30etik urriaren 8ra, bederatzi eguneko bidaia egingen dute Salamanca, Portugaleko Fatima, Nazaret, Estoril eta Lisboa, Caceres, Trujillo eta Madriden barna.

## KULTURA

# Bidasoako V. Zinemaldiko sariak irailaren 16an Lesakan banatuko dira

### ttipi-ttapa

Bertizko Turismo Partzuegoak, inguru honetako zenbait udal eta komertzioaren laguntzaz bosgarren adidiz antolatutako Bidasoako Filme Laburren Zinemaldiko sariak irailaren 16an, astelehenarekin, banatuko dira Lesakako Zambra areto berrian. Aurten go lehiaketan 28 filme laburrek hartu dute parte eta Elizondo, Bera, Doneztebe eta Hendaiako emanaldietan izan dira ikusgai. Horretaz gain, «Otsoen ituna» eta haurrendako «Kiriku eta sorgina» luzemetraiak, eskualdeko jendeak egindako bideoak eta 2001eko Canneseko Publizidade Zinemaldiko bideoak eskaini dira, azken hauek Movierecord enpresari esker.

Laburmetrairik onenak Urrezko Iratzea eta 3.000 euro jasoko ditu; bigarrenak 1.500 euro eta zilarrezko Iratzea eta brontzezko bertze borts Iratze emanen dira.

616 513 497  
P  
i  
t  
t  
i  
ESKABAZIOAK  
(Azarria)  
30W DONEZTEBE (NAFARRA)

## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## Alberto RETEGI

### abokatua

Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763

## BERA

# Antzeko Parezido Antzerki taldea Ipar Irlandako jaialdi batean izan da

Hezkuntza gutituak, gazteak eta antzerkia lotzen ditu egitasmoak

## ttipi-ttapa

Abuztuaren 17tik 27ra Antzeko Parezido gazteen antzerki taldeko kideak Ipar Irlandako Enniskillen hiriko Nazioarteko Gazteen Antzerki Jaialdian parte hartu dute, euskarazko «15. pabilioa» lana aurkeztuz. Bi emanaldi eskaini ditu Berako taldeak, eta eurekin batera, New York, Dunchaoi (Irlandako Errepublikako County Kerrykoak) eta Enneskilleneko Ardhowen Theatreko gazteen antzerki taldeak aritu dira Ardhowen antzokian. Emanaldi egunetan nahiz gainerakoetan, lantalde ezberdinetan banatu dira herriko antzezleak, hainbat tailetan lan egiteko. Lau taldeetako gazteek, elkarlanean, bideo bat



ARGAZKIA: JON ABRILEK UTZIA

14 eta 17 urte arteko hamazazpi lagunek osatzen dute Antzeko Parezido. Horietatik 15 izan dira Ipar Irlandan, hiru arduradunekin batera.

osatu dute, jaialdiaren inguruko gertakariekin. 2001ean Europako Hizkuntzen Urtearen kariatara, Berako taldea, Dunchaoi eta Enniski-

lleneneko gazteak, Ipar Irlandako Derry, Irlandako Cabinteely eta Kataluniako Torroella de Montgrís herrietakoekin elkarlanean, hizkuntza

gutiagotuak, gazteak eta antzerkia lotzen dituen egitasmo batekin hasi zen eta jaialdi hau izan da elkarlan honen lehen emaitza.

## FLASH

## Martikori dirulaguntza

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduak 113.374 euroko dirulaguntza eman dio Conservas Martiko enpresari, aha-tekiak egiteko instalazioetan zenbait hobekuntza egiteko. Zatitzeko, confit egiteko, enbatsatzeko eta etiketatze-katean, barne garraioan eta ingurumena zaintzen eginen dira hobekuntza horiek.

## Kiroldegia urak hartua

Euriak ez du inguru honetan kalte handirik eragin. Halere, abuztuaren 28an udal kiroldegia hartu zuen urak. Lehenengo pisuko lanetan ez zuten teilatua akautua eta urak gainezka egin zuten, behetiko solairuko pista eta aldagelaren bat hartuz.

## Jon Irazoki VII. Memoria

Larunbatean jokatu zuten Gure Txokoa eta Betti Gazte bi taldeko jokalaria izandakoaren omenezko lehiaketa.

## KIROLA

## Fernando Etxegarai korrikalariak irabazi zuen Luis Apeztegiaren omenez Agerran antolatutako lasterketa

Fernando Etxegarai beratarak bigarren urtez segidan irabazi du Agerrako besten barrenean, Luis Apeztegiaren omenez antolatzen den herri lasterketa.

Abuztuaren 24ean jokatatu zen 5 kilometroko krosa eta Berako korrikalariak gibelean utzi zituen Ramuntxo Lamothé saratarra eta Juan Carlos Korta. Betera-

noetan Bautista Telletxea gailendu zen, emakumeetan Rosa Orofino, jubeniletan Gwendal Larque eta kadetetan Mikel Morcillo eta Josune Elgorriaga.



### ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

# OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

## GOYA

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

## LESAKA

### Irailaren 13an irekiko dute Zambra aretoa

Larunbatean, berriz, Los Tigres del Norte taldea izanen da

#### Aitor AROTZENA

Azkeneko urteotan hamaika solasbide eman dituen Zambra aretoak irailaren 13an, ortziralarekin, zabalduko ditu bere ateak, arratsko 22:30etatik aitzinera. Irekiera ekitaldira herriko bertsolari, musikari, dantzari eta bertze kultur taldeak gonbidatuak daude.

Inaugurazioko biharomenean, berriz, larunbatean, Los Tigres del Norte Mexikoko talde famatua izanen da Zambran, areto honek eskainiko duen lehen-dabiziko kontzertu handian. Estatu osoan bi emanaldi bertzerik ez dute emanen mexikarrek, bat Bilbon eta Lesakan bertzea.

Astlehenean, iraila-

ren 16an, Bidasoako V. Filme Laburren Zinemaldiko sariak banatuko dira areto berrian.

#### 2.600 LAGUNENAKO LEKUA ZUTIK ETA MILA ESERITA

Zambra aretoak urte osoan hainbat ikuskizun eta aisiarako ekitaldi antolatu nahi ditu, adin eta gusto ezberdinetako jendeari zuzenduak: diskoteka, antzerkia, dantza, zinea, kontzertuak, kantaldiak... Horretaz gain, bilerak, kongresuak edo enpresa urkezpenak egiteko lekua eskaini nahi dute Zambran, baita, entsaiuak solasaldiak, feriak edo erakusketak egiteko aretoa edo ikusentzuzko grabazioak egiteko edo telebista pla-



ARGAZKIA: LEGARRA

Larruazala beltzatzeko ez, baina onddo biltzeko uda ederra izan da aurten-go. Galdetu bertzenaz, Alberto Sanz, 33 urteko lesakarrari. Berak eta Alfonso Feito aitagin arrebak kiloko onddoa topatu zuten abuztu hasieran Etxalarko mendia batean.

toa ezartzeko lekua ere.

2.000 metro koadro ditu Landazelaietan dagoen eraikinak, baina inguruan dituen belardi eta aparkalekuak kontuan hartuz, 12.000 metro hartzen ditu. Barnean, 2.600 lagun sartzen dira zutik eta 1.000 inguru eserita ikusteko diren ekitaldietan. Beheitiko solairuan, eszenatokiak 215 metro koadro

ditu eta dantza egiteko pistak 19 metro luze eta 13 zabal. 400 aulki jartzeko lekua ere bada bertan, nahi izanez gero. Lehendabiziko solairuan palkoa dago, 400 lagunendako lekuarekin. Urrutien dagoen aulki-lerroa, eszenatokitik 20 metrora dago.

Proiektua gauzatu dutenen arabera, urtean 180 kultur ekitaldi antolatu eta banaz bertze 200.000 lagun sartuko dira. «Kultura eta besta» uzartu nahi dituen areto honetan 30 langile arituko dira. Ortziral eta larunbatetan, arratsko 22:00etatik 5:00etara irekiko da, baita igande arratsalde eta arratsetan ere. Astegunez ere tarteka irekiko da Zambra, kultur ekitaldi ezberdinetarako.

dro ditu eta dantza egiteko pistak 19 metro luze eta 13 zabal. 400 aulki jartzeko lekua ere bada bertan, nahi izanez gero. Lehendabiziko solairuan palkoa dago, 400 lagunendako lekuarekin. Urrutien dagoen aulki-lerroa, eszenatokitik 20 metrora dago.

## XAKEA

### Beti Gazte antolatutako Nazioarteko IX. Xake Irekia larunbat honetan jokatu da udal pilotalekuan

Beti Gazte elkarteak bederatzigarren urtez antolatutako Nazioarteko Xake Irekia larunbat honetan, irailaren 7an, jokatu da udal pilotalekuan, goizeko 10:30etatik aitzinera. Goiz eta arratsalde jokatu dira zor-tzi itzuliak eta 19:15etan egingen da

sari banaketa. Irabazleak 300 € eta saria jasoko du, 200 € eta saria bigarrenak eta 150 € eta saria hirugarrenak. Lehendabiziko herritarrak ere eramanen du bere saria. Izen ematea ortziral bitarte egiten ahal da elkartearen (948 627558, 18:00-21:00).



**kixkur**  
Ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIN  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**ANIA**  
Janari dena  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**XATURETXEA**  
Zabala  
JATE TXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**«USOA»**  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 948635214  
ETXALAR

## ETXALAR

# Norabide-seinale berriak paratuko dira herriko bide eta karriketan

Udazkenarekin ikasturte berria hasi eta uso postuen enkantea izanen dira

## Joseba eta Nerea

Azken hilabetetan, herriko karrikak zolaberitu diren honetan eta herriak bertzelako itxura duenez, Euskara Batzordeak zenbait seinaleren beharra ikusiz, eskaera bat luzatu dio Udalari: Errepiderako norabide seinale batzuk paratzea eta Udalaren menpeko eraikinen seinale adierazgarriak jarzea berteak bertze. Udalak denei baiezkoa eman die eta guziak antzineramaterako konpromezua hartu du. Errepiderako norabide seinaleei dagokienez, herrian bertako lekuak non dauden (igerilekuak, botika, mediku kontsulta, eskola, kultur etxea...) jartzea eskatu dute, Lapurdi, Gipuzkoa, Iruña, Lizaietako gaina, eta bertzeez gainera.

Bertzalde, herrian badaude zenbait eraikin Udalaren menpe egonik, inongo izendapenik ez dutenak eta hauei ere dagokien izena para-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Uda akabatzearen seinale** bat ikasturtea hasia izan da, nahiz eta aurten uda izan dugunik nekez erran daitekeen. Halere, Landagain eskolak atea irekiko ditu ortziral honetan, irailaren 6an. Ikasturte honetan 41 haur matrikulatu dira, iaz baino bat guttiago. 3 berri hasiko dira: Markel Iturria, Andoni Iribarren eta Iker Bizente. Eta lau (Egoitz Olagarai, Hasier Irazoki, Miren Bizente eta Sonia Gaintza) dira bertatik atera eta Berako Toki-Ona institutura DBH egitera joanen direnak.

tzeko eskaera egin du Euskara Batzordeak. Horrela, Herriko Etxea, Mediku Kontsulta, igerilekuak eta okindegiarri bakoitzaren izenarekin errotulu bat jarriko zaie. Izan ere, herritarrok eraikin hauek gu-

ziak non diren ederki dakigu baina kanpotik datozenek aunitzetan herrian mugitzeko arazak izaten dituzte eta horri begira egingen dira berrikuntza hauek denak.

Azkenik, udaletxe az-

pian dagoen postontzian "Correos" jartzen duen lekuan "posta" jartzea eskatu dute euskararen presentzia nabarmenagoa izan dadin. Udalak aurrekoa mantenduz izen berria jarriko duela erabaki du.

## FLASH

## Postuen subasta

Udazkenaren ailegatzen den neurrian, herria uso sasoirako prestatzen hasten da. Horren lekuko da usategietako postuen subasta. Lehenengo enkantea larunbatean, irailak 7, izanen da eguerdiko 12etan udaletxeko areto nagusian. Aipatzekoa da aurten usazaleek parapetoa eta bortzgarren postua enkantean ez sartzeko eskaria egin ziotela udalari, baina honek ez zuen onartu. Honetaz gain, postuen irteerako prezioa joan den urtean baino 150 € garestiago paratu zuen.

## Antsolokuetako bestak

Buruileko lehenbiziko igandean Antsolokuetako bizilagunek besta ospatu zuten. Eguerdian 70 bat lagun elkartu eta Eguzkiederreko larrainean haragi erre bazkaldu zuten. Ondotik, hainbat bikotek musean jokatzeko bitartean, Joseba eta Esti-txuren trikiti doinuek arratsalde parteala lantzen zuten, bertan bildutako jendeak dantzatzeko aukera ederra izanez. Arratsalde berri, eguerdiko haragiarekin egindako fritada afaldu zuten auzotarrek eta hurbildu zirenek.

**KOXKILA  
OSTATUA**



Zarandia, 4 - LESAKA



**Ioredenda**

Albistur, 39-K  
627542  
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

**LEGARRA**

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazioa
Tabakoa	Enkuadernazio
Opariak	lanak
Kukuxumusu kamisetak	lanak
	lanak

**Egunero**

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

**HERRIKO**



## IGANTZI



# Ortziralean hasiko dute eskolan ikasturte berria

Bestak, berriz, irailaren 27tik 30era arte ospatuko dira

### Oskar TXOPERENA

Ortziralean, irailaren 6an, izanen dute lehenbiziko eskola eguna seigarren maila arteko igantziko haurrek. Eguraldiarengatik sobera gozatu ez duten uda joan egin da eta berriz ere lanean hasteko garaia heldu zaie. Hastera doazen ikasturtean berrikuntza handia izanen dute gainera ordu-tegiari dagokionez: gozetan 9:00etatik 12:50ak arte izanen dituzte eskola orduak, eta arratsaldean (irailean, ekainean eta asteazken

arratsaldetan izan ezik) 14:20etan sartu eta 16:00etan aterako dira. Jakin dugunez azkeneko bi ikasturteen bertan izandako Alex irakaslea berriz ere hemen izanen da eta azkenekoan aritutako Maite ere bai. Ez da berri txarra beti eskatu den irakaslegoaren egonkortasunerako.

**Ohitura den bezala, abuztuaren hasierako larunbatean jokatu zuten Biltoki Elkarteak antolatzen duen Herriko Pala Txapelketaren finala argazkian ageri diren pilotariak. Partida ederra jokatu ondotik, tantu bakar baten aldearekin, iaz irabazitako txapela kendu zieten Iñaki Hita eta Bittor Txoperenak Asier Santesteban eta Mikel Arburuari.**



Bestetako hilabete eskasa falta zaigu eta egitarauari buruz berri batzuk allegatu zaizkigu. Irailaren 27tik 30era izanen dira, baina, azken urteotako ohiturari jarraituz, aitzineko aste hondarrean izanen da Artzai Zakur Lehiaketa, irailaren 20an. Egun berean herrian musika paratu behar omen dute gainera. Honetaz gain, hainbertze urtez egitarauan izan diren betizuen kentzea izanen da aldaketa nagusia. Goitiberak ere izanen omen dira.



Argazkian ageri den bezalaxe egon dira uda honetako egun gehietan herriko igerilekuak. Arratsalde eta ilunabarretan nahiko jendebili da bertako ostatuan, giro polita izan da orohar. Igerilekue-tan ibiltzeko, ordea, uda ezin kaxkarragoa egin du, irekiz geroztik txarrera, dudarik gabe. Oraindik 15era arte irekiak egonen dira, baina behin haurrak eskolara hasiz gero, hagitx eguraldi ederrak egin beharko ditu jendea bertara joateko.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

## Herria ezagutz



### Ahate laisterketak

XIX. mendearen bigarren erdialdean herriko bestetan egiten ziren ahate lasterketeei buruz zerbait aipatuko dugu oraingoan. Herri anitzetan bezalaxe, plazan soka batetik zintzilika paratzen izanen zituzten ahateak –hamabi, nonbait– eta herriari zaldiz itzuliak emanez lepoak mozteten saiatzen izanen ziren herriko gazteak. “De costumbre” errateak lehenagotik ere egiten zirela argitzen badu ere, 1885koa da artxihoan oraingoz agertu den aipamenik zaharrena: 1885 31.L/1: «*Que se compren doce patos para la corrida de costumbre y se avise al tamborilero de Aranaz*». 1887ko hurrengo honak, berriz, irabazlearen sariak ematen dizkigu jakitera: 1887 31.L/3: «*Adquirir tres cortes de pantalón y dos pañuelos de seda para la corrida de caballos del segundo día*». 1901ean erabaki zuen Udaltzatzen gehiago ez egitea idatzi honek argitzen dituen arrazoiengatik: 1901 12/1: «*Que las corridas de caballos de San Miguel no responden ya al fin con que sin duda se establecieron y se han convertido en ridícula mojiganga propia para ponernos en mal lugar ante los extraños*». Dirua Lesakako txaranga ekartzeko erabili zuten.

## ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzi Benta • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



**SAROB**  
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

## ARANTZA

# Herriko bestak giro on eta politean pasatu ziren

Irailean sartuta, akautu dira udako oporrak herritar gehienentzat

## Nerea ALTZURI

Denen ahotan eguraldiari buruzkoak izan dira solasgai pasatu berri ditugun bi hilabeteetan. Aurten ez du udarik egin; eguzkiak jai hartu du urte sasoi honetako lehen bi hilabeteetan: belarretarako, mendira ateraldiak egiteko, erreketan frexkatzeko... nola akatutuko ote da? Ez gara sobera luzatuko galdera hau erantzuten, ez garelako iragarpenetan adituak.

Ortzia ez zuen aurpegiarik kaxkarrena erakutsi bestatan behinpein. Abuztuan egin dituen eguraldi goibel eta euritsuek ez zuten atal haundirik hartu urtean behingo jaietan. Eguraldia lagun, ederki pa-

satu dira aurten ere amabirjinak, aurrikusitako ekitaldiak egunez-egun burutuz. Guzia ez aipatzeagatik, egun guzietako ekitaldiei garrantzia ez kendu nahian beti ere, berrikuntzetan erreparatuz laburpen tiki bat eginen dugu.

Xabier Altzuri Herriko Etxeko zinegotziak botatako altxaferuarekin lehertu ziren bestak bezpera ilunabarrean. Aintzinetik ordea, patata tortil lehiaketa arrakastatsua izan zen. Zortzi bikotek parte hartu zuten bestatan izan den ekitaldi berri honetan, eta Kontxi eta Jaione Irigoien izeba ilobek eraman zuten lehen saria. Ondoko luntxean dastatu ziren tortilak, gai-



ARGAZKIA: AYLA

Urte purrusta bat joan da argazkiko dantzari hauek Amabirjin egunean dantzatzen zutenetik. Halere, aurten ikusten dituzuenak eta gehiagok hartu zuten parte herriko dantzen emanaldian.

nerako jan edariekin batera. Herriko musikarien emanaldi politaren ondoren, entzungarri eta dantzagarri ziren mariatxi doinuak ere, berrikuntzen zerrendan sar ditzakegu.

Amabirjin eguneko mezaren ondoko herriko dantzen saioa ere ederra izan zen zinez. Hilabete batzuk aintzina goko besta batzordeko deialdiari erantzun zabal eman zaio aurten. Oraingo eta lehenengo berrogeita hamar bat dantzari osatutako taldeak, frontoian eta herriko karriketan barna eskainitakoa txalotua izan zen.

Herriko gazte asan-

bladak, eskualdeko pre-soen aldeko taldearekin batera antolatutako ARANTZA ROCK 2002 bestatako larunbatean izan zen. Gustora gelditu dira denak; zortzirehun eta berrogeitamar lagun inguru presoan aldeko kontzertu honetan izan zen.

Herriko eta kanpoko kirolarien presentziak ere lagun aunitz bildu zuen frontoira. Pilota partidak eta herri kirol saioak izan dira besta egun gehienetan. Hondar egunean gainera, Donato Larretxea aizkolaria eta herriko semea merezitako omenaldia eskaini zion herriari. Hondarreko egu-

nean, ehun lagun inguru herri bazkarian bildu ziren. Aurten lehen aldiz herriko etxeko gorapean egin zuten otordua eta aspaldiko ohitura berreskuratuz, Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazuren bertsoekin bazkalondoa girotua izan zen. Lehenagotik ordea, iaz ez bezala, aurten bertso jaialdi polita izan zen. Kolina, Egaña, Arzallus eta Sorozabal bertsolariak Julen Zelaieta gaztearen aginduetara, ortziralean aritu ziren plazan.

Hau guzia kontatuta, hurrengo urtekoak ailegatzeko guttiago falta dela gaineratu dezakegu.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

- Astelehenetik asteazkenera 9etatik 13tara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziralean, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



## Harategia

Eztegara 3

Tfnoa: 948 630 198

BERA

# SEKULAKO DIBERTSIOA



KULTURAFESTA LAGUNGIRO Adibertsioa KONTZERTUA Kantzerkia



MUSICA ZUZENEAN dantza EKITALDIAK dj's GAUAzinea BERTSOAK

**ZAMBRA**  
fiesta eta kultura espazioa  
**ESPACIO FESTIVO CULTURAL**  
espacio festivo cultural FIESTA ETA KULTURA ESPAZIOA  
fiesta eta kultura espazioa

## OITZ

# Amabirjin bestak irailaren 6tik 10era ospatuko dira

Peñagarikano eta Nazabalen arteko aizkora apostua izanen da igandean

## Irailak 6 Ortzirala

**20:00etan** altxaferoak beste hasiera emanez. Txistulariak herrian barna ibiliko dira. **21:00etatik aitzina** Herriko Ostatuan Pazin-zopak izanen dira. **00:30etatik 4:30etara** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

## Irailak 7 Larunbata

**11:00etan** herriko trikitilariak herrian barna itzulia emanen dute. **12:00etan** laxoa partittoa, gaztetxo txapelketa. **17:00etan** haurrendako jokoak herriko plazan. **20:30etatik 22:30etara** eta **00:30etatik 4:30etara** dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Ondoren xingar jatea herriko elkartean.

## Irailak 8 Igandea

**11:00etan** herriko trikitilariak herrian barna itzulia emanen dute. **11:30etan** Meza Nagusia. Ondotik hamaiketako Herriko Ostatuan. **12:30etan** aizkora apostua: Peñagarikano Nazabalen aurka. **17:00etan** pilota partittoa afizionatuen arte-



an. **Arratsaldez eta** duak gazteen aurka ari- Antonio Latasa eta Agi-

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jesus Juanena guantelariari omenaldia eskaini zitzaion 1995eko herriko bes-tetan. Aurren ere indar handia izanen du laxoak besta egitarauan: **Larunbata**, gaztetxo txapelketako partittoa jokatu da eta astelehenean herriko gazteak helduen kontra.

**gauzez** dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin. Ondoren, xingar jatea herriko elkartean.

## Irailak 9 Astelehena


**11:00etan** herriko trikitilariak herrian barna itzulia emanen dute. Ordu berean mus txapelketa herriko elkartean. **17:30etan** herritarren artean Laxoa partittoa, hel-

tuko dira eta denen afa-riak jokoan izanen dira. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin. Ondoren, xingar jatea herriko elkartean.

## Irailak 10 Asteartea

**11:00etan** herriko trikitilariak herrian barna itzulia emanen dute. **12:00etan** herri kirolak:

te, Aierbe eta Arria Ilren aurka. **14:00etan** herri bazkaria. Bertsoetan Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña arituko dira. **17:00etan** toka eta sokatira norgehiagokak, herritarren artean. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin. Beste bukaera emateko, kalejira herrian barna eta Gaixoa Ni.



**PAGOLA**

**TXISTORRAREN  
IZENA**

© 948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
BERA

TEL K  
K MISET K  
ISE K  
N HI UZUNK U U. NEU I ET (SEINU) ERN  
Ezt r 2 h T I- F X 3 15 21

**belardenda**  
Mediku naturista  
kontsulta  
Masajista  
Legia I, behea • BERA • © 948 630652



## ERATSUN

# Leokadia Amabirjinaren bestak irailaren 7tik 10era

Larunbatean harrijasotzaile eta aizkolarien erakustaldia egingen da

### Larunbata 7

**Goizez eta arratsaldez** umeen parkea (moto, karts, gaztelu puzgari...). **18:00etan** herri kirolak Saralegitarren eskutik: harri jasotzea, aizkora saio ezberdinak... **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

### Igandea 8 Santa Leokadia Eguna

**9:00etan** argisoinua, kalejira Aurtizko txistulariekin. **12:00etan** Meza Nagusia Leokadia Amabirjinaren ohorez. **13:00etan** Miel Mindegia eta Donato Larretxearen arteko aizkora apostua. **17:00etan** pilota partiduak. Haurrak: Beñat eta Eneko, Gaiz-



ARGAZKIA: MARI CRUZ RETEGIK UTZIA

**Aspaldiko urteetan bezalaxe, herri bazkariarekin bukatuko dira bestak. Aurtengoan, Peñagarikano eta Irazu bertsolariak izanen dira.**

ka eta Endikaren aurka. Kadeteak: Urrutia eta Ezkurra, Iraola eta Arregiren aurka. Afizionatuak: Mazkiaran eta Eskudero, Zubieta eta Iraztebururen aurka.

**20:00etan** Jon Bergaretxeren kantaldia. **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

### Astelehena 9

**11:00etan** herriko mus txapelketa, sari handiekin. Txapeldunek bildots bana; txapeldunordeek, bina txuleta eta bina botil ardo. Hirugarrenek, bina txuleta.

**17:00etan** pilota partiduak. Gazteak: Larralde eta Etxeberria, Ben-goetxea eta Astizen kontra. Afizionatuak: Irazoki eta Tirapu, Azpiroz eta Huarteren kontra. **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia MODESTOrekin.

### Asteartea Trailak 10

**12:00etan** ahari apostua, herriko ahariekin. **14:00etan** herri bazkaria, Angel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin.

**17:00etan** Eratsun eta Elorrioko pilotarien arteko partiduak. Gazteak: Beitia eta Arana, Arrastoa eta Elizalderen aurka. Afizionatuak: Azkune eta Deskarga, Retegi eta Eskuderoren aurka. **Arratsaldez eta gaez** dantzaldia MO-

**BEINTZAko  
OSTATUA**

© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

© 948630155  
**BERA**

**LESKA**

**MEDIKUNTZA NATURALA  
NATUROPATIA**

**ONDORIOETATIK INDARTZEKO:**

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

**IKUSMENAREN  
BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**GIHARRE  
ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**San Marcial, 7-4 IRUN**



## Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

## GOIZUETA

## Fiesta ikaragarriak aurtengoak ere

Umore Onak garbitzailearen lanposturako deialdia egin du

### Esteban AROTZENA

Hainbat gaitan herriaren beherakada garbi samarra baldin bada ere, abuztuaren 14tik 19ra Goizuetara etorritako ehundaka lagunek ez zuten horrelakorik asko somatuko, ikaragarriko izan baitzen sei egun horietako giroa.

Uda guztian ez bezala, eguraldiak ere lagundu zuen eta kalera prestaturako ekitaldi guziak inolako arazorik gabe ospatu ziren, batzuk inoiz baino jendetza handiagoaren parte hartzearekin, gainera, bertso saioa, edo mexikarren emanaldia kasu. Beste batzuetan, berriz, zezenetan, berbenetan edo txarangan esate ba-

terako, parte hartze hau eskas samarra izan da eta eztabaida irekia gelditu da urte osorako. Dena den, gaur egungo fiesten termometroa taberna eta txoznetako giroa baldin bada, proba ederki gainditu du aurtengo gure herriak.

### Umore Onako garbitzailea

Umore Onako komisiok jakinarazi duenez, elkarteko garbitzailearen arduradun lanpostua bete beharrean aurkitzen da. Informazio gehiago jasotzeko edo izen emateko Pili Elizegi edo Asier Lujanbiorengana jo beharko duzue interesatuek irailaren 20a baino lehen. Baz-



ARGAZKIA: ESTEBAN AROTZENA

Jokin Loiarde zinegotziak bota zuen itxaferoa. Peñaren egunari ukittu berezia eman zioten aurtengo argazkian azaltzen diren Juan Marik, Patxik eta «Xubiri»k.

kideen asanblada berriz, hilaren 28an egingen da.

### Dekorazio ikastaroa

Heldu den urritik abendura bitarte luzatuko den dekorazio-margogintza ikastaroan parte hartu nahi dutenek Herriko Etxean izena eman dezakete irailaren 13a arte.



## ARESO

## Aresoko harria altxatu zuten herriko pestetan Ostolazak eta Goenatxok

Zuriñe Goikoetxea igerian txapeldun

### Juana Mari SAIZAR

Uda sasoiari paso eman diogula dirudi. Eguraldiari dagokionez, zaila egiten da hori sinista, baina ikusiak ikusi, gure alderdi honetan urak ez du kalterik egin. Pozgarria eta konformatzailea da.

Herriko festetan ekitaldi berri bat ikusi ahal izan dugu aurtengoan, Aresoko harria altxatzeko saiakera. 184 kilokoa omen da harri traketsa eta zakar hau. Inongo heldulekurik gabe, eta ertzarik gabekoa. Bere zailtasuna zuen altxa-

tzeko, baina Ostolaza eta Goenetxo etorri, saiatu eta altxaldia egin zuten.

### Zuriñe Goikoetxea igerilari osoa

Abuztuaren 21ean, Sakanako Mankomunitateko igerilari osoaren



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Sakanako igerilari osoaren txapelketa irabazi zuen infantil mailan Zuriñe Goikoetxeak Lakuntzan.

txapelketa jokatu zen Lakuntzan eta infantiletan Zuriñe Goikoetxea txapeldun suertatu zen.

Iruñean jokatu diren Udako Kirol Jokoetan zuzenean parte hartzeko aukera izango du.

## LEITZA



## «Horrela segituz gero etorkizun laburra du txirrindularitzak»

Koldo Alduntzin zuzendariaren ustez

**Mikel ILLARREGI**

Festak bikain joan dira, dena ez bada, gehiena azpimarratzeko modukoa; programaketa, jende kopurua, antolaketa, garbiketa lanak... dena oso ongi. Txarrik? Garrantzitsurik ez. Eguraldia izan da hain lagun izan ez duguna, hala ere, ondoren «handiagoak bota ditu». Beste batzuren artean, txirrindulariak izan dira deskantsurako tarte handirik hartu ez dutenak eta hori eskertu nahian, txirrindularitzari buruz ariko gara.

Honetarako Koldo Al-

duntzinekin bildu gara eta herriko txirrindularitzaren egungo egoera azaldu digu. Lau kategoritan banatzen dira lasterketetan aritzen diren hamar leitzarrak. Andoitz Azurmendi da alebinetan ari den bakarra eta etorkizun polita antzematen zaio. Kadetan Iñigo Lizartza dugu eta hau Nafarroatik aukeratua izan zen Espainiako txapelketarako.

Jubeniletan bost txirrindulari ari dira. Hiru Iruñeko Caja Rural-Uno taldean ari dira, Iker Aizagirre, J.Mari Sestorain eta Mikel Nieve. Tal-

de honen zuzendaritza eta entrenatzaile moduan Koldo Alduntzin eta Jose Luis Larralde daude. Maila honetan, baina Gipuzkoako Oriako taldean Garikoitz Alduntzin ari da. Txikitan Leitza bizi izan zen Gorka Lizarraga ere Iruñeko taldeko partaidea da.

Azkenik, afizionatuetan hiru ari dira. Nafarroako Monjardin taldean lehen urtea duen Iñigo Sagastibeltza. Jaber Ariztimuñok, lehen urtean ere, eta Gorka Bermejok bigarren urtez, Gipuzkoako Ulma-Cegasa taldean korri-

Caja Rural-Uno taldean ari dira Iker Aizagirre, J.Mari Sestorain eta Mikel Nieve txirrindulariak, Koldo Alduntzin zuzendaria eta Jose Luis Larralde entrenatzailea. Beraienkin, Liborio Ariztia doneztebarra ageri da.

tzen dute. Aipatzekoa, Gorka behin baino gehiagotan lehen hamarretan sartu izan dela.

Hau da txirrindularitzan egun herrian dagoena, baina geroari begira ez dira baikor azaltzen zuzendariak. «Horrela segituz gero, etorkizun laburra. Beste lau-pabost urte eta kitto. Txirrindularitza kirol gogor eta arriskutsua da, horregatik gazteak ez dira gehiago animatzen, eta beste kirolaren bat nahiago izaten dute» dio Koldok. Etorkizun ilun honek irtenbiderik ba ote duen galdetuta, zonaldean beste kirolaren ari den Urtxintxa taldean sartzea izanen litzatekeela esaten du, «horrela Beratik hasi eta Leitza bitarte dauden txirrindulari gazteak bildu eta talde bizkor eta maila onekoa egin».

## FLASH

### Karneta berritzea

Aspaldian esan genuen moduan, karneta berritzeko gutxienez 100 eskaera egin behar dira alde zurretik. Hauek osatu direnez, ostiral honetan, irailaren 6an, etorriko dira herrira. Bartzuek baja eman dutenez, norbaitek -nahiz eta izenik aurretik ez eman- berea berritu nahiko balu, udal bulegoetara hurbil dadila argazkia ekarri.

### Torrea itxi dute

Abuztuaren 26an, 23:15etan, Torreko egoitzara goardia zibilen patrolok bertaratu ziren. Ostatuan sartu eta barruan zeuden 30en bat pertsona identifikatu ondoren, bertako bat lekuko izanik, lehen solairuko egoitza itxi eta prezintatu zuten. Oraingoan, Torrearen taberna ez dute itxi. Batasunaren ilegalizazioari aurre egiteko mobilizazioak egin dira hemen ere: kontzentrazioa, asanblada, manifestazioak... Bilbon larunbatean eginen den manifestaziora autobusa aterako da. Izen ematea irailaren 6a baino lehen.

## ARANO

## Txobitori omenaldia eskaini zitzaion San Roke egunean

Txistulariek bere gustoko ziren kantuak jo zituzten

**Kontxi KLABER**

Aurten Txobitori omenaldi txukuna egin diote, 11:00etan ermitan sartu eta irteeran txalaparta hotsak entzun genituen. Mezetan 3 bertso kantatu zituen Martxelek, gero bukatzeko herriko plazan be-

rak gustokoan zituen piezak jo zituzten txistulariek.

San Roke eguna azpalditik ospatzen da Aranon: Hernaniko Ansoarena anaiek jotzen zuten txistua eta hauek utzi zutenean urte batzuetan galdu egin zen.

Aranoko Montebeo etxeok animatu zuten Txobito berriz egun hau alaitzera. Hori zela 30 urte bete dira aurten eta Arborada de Segura jo zuen bere lehen urte hortan. Hortik gutxira Jaber Nabarte, Bartzelonan bizi den herritarra,



animatu eta Txobitorikin batera hasi zen. Bartzelonan txistu klaseak ere eman zituen. Geroztik urtero etortzen da bere ikasle batzuekin. Hernaniko Patxi ere ur-

tero etortzen da. Badiara 5 urte Txobitori omenaldi egin zitzaioa Aranon, 25 urte betetakoan, eta joan zen urtean Hernaniko Garbiñeri egin zitzaion.

## BAZTAN

# Irailaren 10ean akituko da udazkeneko ikastaroetan izen emateko epea

Balleko Udalak eta Nafarroako Emakumaren Institutuak antolatu ditu

## ttipi-ttapa

Balleko Udalak eta Nafarroako Emakumaren Institutuak udazken honetarako antolatu dituzten ikastaro interesgarrietan izen emateko epea irailaren 10ean, asteartearekin, akituko da. Marrazketa artistikoa, moble zaharren konponketa, eskulan eta lore prentsatuaz konposizio ikastaroak ematen dira.

48 ordu iraunen dituen marrazketa ikastaroan hamabortz laguneko bi talde egingen dira. Astearte eta ortzegunetan ematen dira klaseak Arizkuneneako 3. solairuan. Talde bat 17:00etatik 19:00etara eta bertzea 19:00etatik 21:00etara ariko dira, urriaren 1etik aitzin.

Moble zaharrak konpontzeko ikastaroan ere bi talde egingen dira. Batean 15 lagun ariko dira gehienez, astelehen eta asteazkenetan, 16:00etatik 20:00etara azaroaren 4tik aitzinera, 60 orduko ikastaroa



ARGAZKIA: DIARIO DE NOTICIAS

**Jose Mari Apezetxea eta Tomas Sobrino margolariak udan eskaini duten ikastaroak arrakasta handia izan du. 1994an hasi ziren esperientzia honekin eta urtetik urtera partehartzaile gehiago du.**

osatu arte. Bertzean, ortziral eta larunbatetan 16:00etatik 20:00etara ariko dira, gehienez 18 lagun, 104 orduko ikastaroan urriaren 4etik aitzin.

Eskulan ikastaroa urriaren 1ean hasiko da, 48 ordukoa izanen da eta astearte eta ortzegunetan ematen da, 15:00etatik 17:00etara.

Lore prentsatuaz konposizio ikastaroak ere 48 orduko iraupena izanen du eta irailaren 30ean hasiko da. Astelehen eta ortzegunetan ematen da, 15:00etatik 17:00etara.

Arestian aipatu bezala, heldu den asteartean akituko da udal bulegoetan izen emateko epea, 9:00etatik 13:00e-

tara. Horretarako 16 urte beteak izan behar dira eta guttienez hamar laguneko taldea osatu. Inskripzioak plazak baino gehiago baldin badira, zozketa egingen da (bartzandarrek lehentasuna dute) eta onartuen zerrenda irailaren 13an agertuko da Balleko Etxeko eta Arizkuneneako iragarki-taulan.

## FLASH

## Baserrietako bideen moldatzea

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Departamenduak uholdeek hondatutako Baztango zenbait baserrietako bideak moldatzeko lanak diruz laguntzea onartu du 2001-2003 Hirurteko Planean sartu ondotik. Erretzun, Azkarate auzoko lau bide eta Untxide auzoko bortz bide zati moldatuko dira, Gartzaingo bide bat eta Arizkungo hiru. Zola berdindu eta zahorra zabalduko da. Lanen aurrekontua 18.398 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak 13.146 ordainduko du.

## Bide seinaleak

Balleko Udalak N-121-B errepideko zolako seinaleak aldatzea eskatuko dio Nafarroako Gobernuari. Oronoz, Arraioz eta Irurita inguruetan lerro jarraia jartzeko gehiegizkoa iruditzen zaio Udalari eta gidarien arrenkura sortarazi du. Errepide honetan egindako moldaketa lanen ondotik, kasik 6 kilometroko lerroa paratu dute, aitzintzea debekatuz. Modu berean, Lekaroztik ateratzean Elizondo aldera hartze-erri durrigortzen duen seinalea kentzea ere eskatuko da.



**BAZTAN  
FUNERARIA**

Mateo Lertxundi

**TANATORIO ZERBITZUAK**

**HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK**

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• © 948 580373 • 608 776176



**BAZTAN**

**ALTZARIAK  
zurgindegia**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

# MUEBLES METS



## Sukaldeak Egongelak Logelak Bainugelak

**Sarrera**  
**BERATik da**  
Sastrin karrika,  
3.2 - 3.4 Alkaiaga  
**31789 LESAKA**  
Tfnoa. 948 630 537  
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE  
WEB ORRIA  
[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)



**IRAILAREN 14A BITARTE**  
**LARUNBAT**  
**ARRATSALDETAN ITXITA**

**4000 m<sup>2</sup> erakusketa**

# ME K

**ERAKUSKETA**  
**ALDAKETA**

**BEHERAPEN**  
**HANDIAK**

# METS

**EGURREZKO LOGELAK**  
**(GAZTAIN, HARITZ...)**

**ERAKUSKETAN**  
**DAGOENA**  
**BUKATU ARTE**  
**ikusita eta**  
**eraman!!!**

**Senar-emazteentzako logela osoa**

Lehen 3.193,17 €

%50 deskontua

Orain **1.596,58 €**

**Senar-emazteentzako logela armairurik gabe**

Lehen 1.741,82 €

%50 deskontua

Orain **870,91 €**

**%50**  
**deskontua**



**BAZTAN**

Elbeteko Gurutze Sainduko bestak irailaren 13tik 16ra

Larunbatean Panpi Portugal

**Ortzileria 13**  
**Bezpera**

**18:00etan** Su-ziria bes-tei hasiera emateko. **21:00etan** Baztan-Zopak herriko Ostatuan. **00:00etan** Txopo goratzea. Ondotik dantzaldia Franciscorekin.

**Launbeta 14**  
**Gurutze**

**Sainduaren eguna** Meza Nausie. Ondotik hameketakoa Ostatuan. **14:00etan** Gazteen bazkaria Oinaskan. **18:00etan** Ikusgarri, mo-tozerrarekin egurrean irudiak egiten. **20:00etan** Panpi Portugalen kantaldia. **22:00etan**

Mutil dantzak. **01:00etan** Dantzaldia Panpi Portugalen taldearekin.

**Igendia 15**  
**Haurren Egune** Meza nausie. **16:00etatik 18:00etara** "Kulki", haurrendako herri kirolak. Ondotik txokolate jatea. **17:30etan** Bapateko mus txapelketa Ostatuan. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia Franciscorekin. **22:00etan** Mutil dantzak.

**Astlehena 16**  
**Herritarren Egune** **14:00etan** Herri bazkaria Karrikatxarren Franciscok alaituta.



ARGAZKIAK: RAKEL GOÑIK UTZIAK

Elbeteko eskolako neska-mutikoak, eliz atarian eta Igantziko San Juan Xarren.

Txokotoko bestak aste hondar honetan taldearekin. an. Dantzaldia.

**Ortzileria 6**  
**19:00etan** Muniarteko zubitik txupinazoa. Txistulari, buruhandi eta erraldoiak. Sardin jatea. **21:30etan** Gazte afaria. **Atsalde-gauz** dantzaldia JALISKO BAND

**Launbeta 7**  
**Goizean** txistulari, buruhandi eta erraldoiak. Pilota partiduak trinke-tean. **14:30etan** Zikiro jatea. **15:30etan** sokamuturra. **19:30etan** pilota partidak Antxitone-

**Igendia 8**  
**Goizean** buruhandi eta erraldoiak. Merkatua. **16:00etan** gazte kuadrilen arteko jinkana eta kukaña. **17:00etan** haur animazioa. **18:30etan** sokamuturra. **Gauz** dantzaldia.

JULIE'S ENGLISH ACADEMY

SPARK

✓ 2002-03  
Ikasturterako matrikula zabalik irailaren 27a arte

✓ Haur, gazte eta helduendako ingeles klaseak talde ttiketian

948 580175 - Paularena 35  
ELIZONDO

**Landibar**

ZENTRO KOMERTZIALA  
URDAZUBIN



300 m<sup>2</sup> perfume markarik ezagunenekin  
Usain-onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

**MENDI**  
**OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313  
ELIZONDO

**MENDIALDE**  
**Jatetxea**



AMAIUR • © 948453060

## SENPERE

# Martxoan hasiko dira kirol zelaieko xaharberritze lanak

Agorrilaren beha egon behar izan da eguzkia ikusteko

**Franck DOLOSOR**

Herriko etxea eta SPUC kirol batasuna akort eman dira rugby zelaieko berritze eta modernizazio lanak 2003ko martxoan hasteko.

Aldagelak eta jartokiak eraikia eta gaurko zelaia berrantolatua izanen da. Bi motako lanek ahal bezain traba ttikiena eginen diote SPUCari zeren primaberan aktibitate frango iragaiten baita toki hortan. Kontseilariak eta kirolariak eskuz esku muntatu dute aspalditik aipatzen zen proiektu hau.

Heldu den primaberako eskuratuko dira obrak hasteko behar diren baimen eta diru-laguntza publiko guztiak. Orduan dei egingen zaio te ofizialeeri lanak lehen bai lehen egiteko gisan. Heldu den urte hondarreko ehundaka kirolariak toki berri eta arras modernoak izanen dute

beren denbora pasarentzat.

### Eguzkia noiztenka

Aurten udarik ba ote dugun galdezka ari da jendea. Uztail euritsuaren ondotik agorrilaren beha egon behar izan da noiztenka eguzkia agertzen ikusteko. Dena dela, euria xirimiria baita idortea jasan dute gure lurrek harrigarria baldin bada ere egunero aterkia hartu behar izan dugulakotz etxetik ateratzeko. Memoria ona dutenek gogoan izanen dute halerre uda txarragoak izan zirela lehenago ere bereziki 1980ean eta 1954ean aro ikerleek oroitarazi dutenaz.

### Udako ikusgarriak

Uda hondar huntan ikusgarri ederrak eskaintzen segitzen dute herriko elkarteek: aste-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Euskal konfederazioko presidentea Marie-Jeanne Merkapidek eta andere auzapeza Christine Bessonart-ek lankidetzak hitzarmena sinatu zuten agorrilaren 6an euskarari tokia emateko bizi publikoan. Aintzineko Ttipi-ttapan aipatzen ginuen bezala hemendik goiti euskaraz ere izkiriatu ahal izanen ditugu sortze-agiriak, ezkongabeko elkartzetara zibilarren aitortpena edo heriotz ziurtagariak bertzeak bertze. Gure mintzaira ez bada ofiziala ere frantses legeak ez du debekatzen paper publikoak euskaraz idaztea. Herriko kontseiluen deliberazioak ere bi hizkuntzetan erredaktatzen hasiak dira eta ez da sekulan problemarik izan Baionako su-prefeturan. Bertze 15 herri senper-tar kontseilarien etsenplua segitzea deliberatu dute.

lehenetan behi kurtsak, asteartetan euskal dantzak eta andaluziar feria, ortzegunetan indar jokoak eta ortziraletan pilota partidak. Gehienak kanpotiarrentzat prestatzen dira bainan herriko jendeak ere hauetaz gozatzen ahal du. Agorrilaren 29 eta 31an, Emak-Hor musikariak entzun edo Pro-bentziako dantzak ikusi ditugu. Azkenik, buuruilaren 4an Xaramela korua kantuz ariko da elizan, 21:30etan.



Udan ikusgarri frango eskaintzen da eta hauen artean Ziricolatz dantza taldeak biltzen du jende gehiena. Astearte guziz, dantzak, jantzi koloretsu ainitz eta alaitasuna ikus ditzake gure gazteek emanik.



**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte  
ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853



# ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



## SARA

# Herriko bestak buruilaren 7tik 11ra

Igandean herri kirol saio

## Larunbata 7

**17:00etan** Sara korrikak antolatzen duen 12 kilometroko lasterketa **22:30etan** kontzertua Nundik Nora taldearekin. Ondotik **gauerditan** dantzaldia, GAUBELE taldearekin. Gau guzian karriken animatzeko hor izanen ditugu Iparraldeko Gaiteroak eta Uztaritzeko Txaranga.

## Igandea 8

**10:00etan** meza nagusia Urruñarrak klikarekin **10:30etan** luzean errebotean Azkain Hiribururen kontra. Karriken animatzeko hor izanen ditugu Tanborrada Mariñelak eta Baigorri, Iruñea eta Sarako gaiteroak. **Eguerditan** Presoen aldeko bazkaria Sarako gaztetxeak antolatzen. **16:30etan** arratsaldea hasiko dugu joladunen ibilaldiarekin, eta ondotik hainbat animazio izanen dira, hala nola, ahate jokoa, soka tira Urruña eta Zuraideren kontra, lasto altxatzea, 4 aizkolarien arteko desafioa, hor izanen ditugu Senosian anaiak, Teillechea eta Jaunarena, Orga jokoak eta harriz altxatzea Perurena aita semeekin. **19:00etan** aperitifa Baionan Kantuz taldeak animaturik.

**22:00etan** kantaldia Jogo ta Ramuntxorekin. **23:30etan** Dantzaldia SAMAIN taldearekin. **00:00etan** suzko zezena Gau guzian karriken animatzeko hor izanen dugu Los Inconitos taldea.

## Astelehena 9

**Goizean** karriken animatzea gaitero eta txistulariekin. Horizanen ditugu ere Kanboko ziganteak karriketan dantzari. **10:30etan** luzean errebotean Uztaritze Senpereren kontra. Eguerditan zikiro jatea sarako ikastolak antolatzen. **17:30etan** pilota partida trinketean De Ezcurra eta Martiarena, Aramburu eta Dermiten kontra. Tenore berean plazan dantza ikusgarria sarako Zazpiak Bat taldearekin. Ondotik fandago xapelgoa Bera eta Sarako trikitilariak. **20:00etan** aperitifa trikitilariak animaturik. **22:00etan** Kantaldia Emaztekiak Kantuz taldearekin. **23:00etan** dantzaldia XITOAK taldearekin. Gau guzian Ezpeletako txarangak karrikak animatuko ditu.

## Asteartea 10

**Goizean** gaiteroak eta txistulariek karrikak ani-



ARGAZKIAK: LEMOINE

**Igandean autoak eta jendea mozorrazteko ohitura handia da Sarako bestetan. Pilota partidek indar handia izanen dute aurten, plaza libroan nahiz trinketean.**

matuko dituzte. **10:30etan** luzean errebotean Hazparneko Noizbait taldea Aviron Bayonnaisren kontra. **17:30etan** joko garbi partida. Lehenik gazteak Sarako Izarra Senpereren kontra eta ondotik helduen partida, Frantziako txapelkunak, Pellerat anaiak eta Saint Esteiben selekzio baten kontra, Duprat Marzat eta Albistur **19:00etan** mutxikoak Patxi eta Batbihiru taldearekin. **20:00etan** aperitifa trikitilariak animaturik.

**22:00etan** dantzaldia OTXOAK taldearekin. **Gauerditan** suzko zezena.

## Asteazkena

11

**Goizean** gaiteroak eta txistulariek karrikak animatuko dituzte. **9:00etan** Sarako Aziendak trinketeko zabaldean, 1700 euroko primak banatuko direlarik. **10:30etan** Pleka trinketeko xokoko txapelketaren finalerdiak, Inda Lafitten kontra eta Olaza-

gasti Alfaroren kontra. **12:00etan** finala. **17:00etan** pilota partida plazan, Mariluz eta Alfaro, Berasategi eta Ildiarten kontra. **18:30etan** pilota partida trinketean. Larrechea eta Carricart, Lafitte eta Etchetoren kontra. **19:00etan** bertsu saioa, Ezpanda, Arzallus, Colina, Amorena eta Alkatekin. Ondotik zozketa. **22:00etan** Dantzaldia Ibiliz taldearekin. **Gauerditan** bigarren dantzaldia Tabasco Taldearekin. **Gau guzian** horiza-



**SARA**

## Ramuntxo Lamothe saratarrak marka berria ezarri du Kontrabandisten Lasterketan

Minuta bat eta lau segundutan ondu zuen iaz berak egindako marka

**Xan HARRIAGUE**

Urtero bezala, eta denbora lagun ez zute-larik, Bidasoako bi aldetako 40 lasterkari lehiatu ziren Sarako 40garren kontrabandisten lasterketan agorri-laren 24an igande arratsaldearekin. Azken eurien ondorioz, lurra le-rrakorra bazen ere, par-tehartzaille guziek pu-blikoaren laguntza ukan zuten. Azken bi urtetan bezala Ramuntxo La-mothe saratarrak iraba-zi zuen denbora berri bat eginez. Iaz berak egindakoa gaintutuz mi-nutu bat eta lau segun-duz, ibilbide guzia egin zuen 38 minutuz eta 58 segunduz. Hirugarren aldikoz irabazi badu ere ez zuen lasterketa erre-za izan, Fernando Etxe-



ARGAZKIA: LEGARRA

**Kontrabandisten Lasterketako partehartzailleak, proba hasi baino lehen.**

garai beratarra osaga-ri onean etorri baitzen Sarara eta bigarren fi-nitu zuen 39 minutu eta 34 segundurekin, hunek

ere iazko denbora gain-ditutuz. Ondotik Jaime Etxegarai sartu zen 40 minutu eta 36 segunduz eta bi beratarrek talde-

kako lasterketa irabazi zuten. Laugarrena, Le-sakaren izenean, Iñaki Lopetegi izan ginuen 43 minutu eta 9 segundu-

rekin. Ondotik Xiril Al-varez (43.21), Jean Christophe Pechbert (43.23), Daniel Mehats (43.38), Jakes Bernet (43.40), Jose Luis Loiar-te (43.42), Gorka Gar-ces Beitia (44.19), Mi-xel Larzabal (45.49), Xa-bi Goiti (46.09), Joseph Iramuno (46.23), Jose-ba Aranibar (48.14), Claude Etxegarai (49.03). Azkenak bai-nan meresimendu aini-tzekin ibilbidea finitu zuen 70 minutu eta 4 segundurekin, Severo Rufu Bergarak.

### Sara Korrikaren lasterketa

Sarako lasterkarien elkarteak bigarren aldi-koz antolatzen du las-terketa bat, herriko bes-ten larunbatarekin.

**I CHE**  
GESTIONES FINESES ELNTE, S.L.

**TANATORIO BAZTANDARRA**  
Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,  
Urdazubi eta Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua tanatorioan  
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959  
☎ 900 704704

**HERRIKO ETXEO EDANTEGIA**  
CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL 0559542519

© 948 631462  
Aitzate I • BERA

**Xiril**

**Eskelak eta urtemugak ttipi-ttapan**  
**948 631188**

**EKAITZA**  
Hostala • Kafetegia  
Gelak TB eta bainuarekin

Terraza eta plater konbinatuak

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**

abokatua  
Aseguru orokorrak

☎ 948581468 • 948580433  
Frantziarako etorb. 12 •  
Ameztialde 3B • **ELBETE**

**ZUBIONDO JATETXEA**

Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
saqardoteqia jatetxea saqardoteqia

## AZKAIN

# Lehen ezkontza euskaraz!

Uztailaren 27an egin zuen auzapezak

**Ihintza, Angela eta Eneko**

Euskal konfederazioak, herriko etxeetan euskararen erabilpena bultzatzeko kanpaina hasi du. Hortarako, testu ofizialak euskaratu ditu. Honen ondorioz, orain, ipar euskal herriko etxeetan, administrazio urratsak euskaraz egiteko posibilitatea bada. Hala nola, uztailaren 27an auzapez jaunak lehen aldiko ezteiak ofizialki euskaraz eman zituen, Gabi Daguerre eta Ihintza Solorzano ezkonduz.

## Saratarra irabazle

Larrungo lasterketa, aurtien ere, Frantziako koparen etapa bat izan da. Hala ere euskaldun batek irabazi du: Ramuntxo Lamotte saratarra. Azkainen lan egin du. Lehenbiziko hau lortu duenez, beste kopapa batzuen gainditzeko



## Marmitako txapelketa

Marmitako txapelketa Abuztuaren 25ean, Igandearekin, plazan iragan zen, azkaingo elkarteek antolatuturik. Hamabi bikotek parte hartu zuten. Ehun ta larogei bazkari saldu dira: euriarengatik denak biltoki gelan sartu behar izan ziren. Christian eta Manu Daguerre-ek hirugarren bukatu zuten, Elorri eta Antton Larroquet-ek bigarren, eta Martta Azarete eta Pantxika Etchegaray txapelkunak izan ziren. Arno botelak, gerriko eta mantala eder bat irabazi zituzten. Bazkaria giro goxo batean bukatu zen.

gogoia eman zaio. Heldu den urtean, Larrungo lasterketa, frantziako koparen azken etapa izango da munduko txapelketan parte hartzeko.

## Omeleta txapelketa

Lehen aldiko, abuztuaren 24an omeleta txapelketa izan da Azkainen. 10-14 urte arteko haurrak onartuak ziren. Omeleta, lur sagarra eta tipulekin presta-

tu behar zuten; biper beltxa, gorria, perresila edo batxuriak ematen ahal ziren gustua emendatzeko. Hamabi bikotek parte hartu zuten. Hirugarren saria Belloc Lucie eta Etcheberry Anak irabazi zuten, bigarrena Lecuberrieta Mikela eta Etcheberry Maiderek. Txapelkunak, Larroquet Fabien eta Etcheberry Romain izan dira, argazki tresna eder bat irabaziz. Plazako ostatu bakoitzetan omeleta



bat banatua izan zen eta arratsaldean poteo ttiki batekin bukatu zen.

## Besta eta kirola

Azkaingo bestak abuztuaren 15 ean hasi ziren. Besten idekitze-arentzat lau kirolari ezagun gomitatuak ziren:

Gabi Ibarburu, munduko pilotari txapelkuna, Frederic Lafitte mendizalea Everestera igotzen, Ramuntxo Lamotte, Larrungo lasterketaren irabazlea, eta Xala pilotaria (Yves Sallaberry), aurtengo txapelkuna.



G U T N T I T L E  
**ICHÉ**  
MALDAERREKA, S.L.

## FUNERARIA ZERBITZUAK

DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziriak eta Malerrekán  
24 orduko zerbitzua beilatokian  
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo  
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404

☎ 900 704704



**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekueetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

**PERTSIANAK**

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



## EZKONTZAK

**Joseba Mikel Otegi Aizpuru** eta **Ainhoa Bakero Eskudero**, Asteasu eta Goizuetakoa, uztailaren 6an.

